



EGUNEROKO

BIZIKIDETZAREN GESTIOA

Koldo Mitxelena Institutuan abiapuntu eta ildo nagusi gisa ditugun baloreak eguneroko bizitzara eramaten saiatzen gara, momentu eta modu askotan. Dokumentu hau prozedura hauek hitzez eta modu antolatu batean jartzeko modu bat da, bizitza paper batzuetan nekez bil daitekeela jakin badakigun arren. Ez dago berrikuntzarik edo aldaketa berezirik: egiten duguna ordenatu eta jasotzen saiatu gara.

1. BALORE ETA IRIZPIDE NAGUSIAK
2. BIZIKIDETZA BATZORDEAK
3. DISZIPLINA PROZEDURAK
4. IKASLEEN ESKUBIDEAK
5. IRAKASLEON JARRERA
6. GURASOEKIKO LANKIDETZA
7. TXANGOAK ETA BIDAIK
8. BITARTEKARITZA ESTRATEGIAK
9. BULLYINGERAKO ESTRATEGIAK
10. BIZIKIDETZA BEHATOKIA

1. BALORE ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

Gure **balore eta abiapuntuak** honakoak dira ("Ikastetxearen ildo eta printzipio nagusiak" dokumentutik jasota):

- ✓ *Guztion arteko errespetua eta tolerantzia*
- ✓ *Zintzotasuna, egiazaletasuna*
- ✓ *Sentikortasuna*
- ✓ *Elkarbizitzarako denon ardura eta konpromisoa, adiskidetasunaz*
- ✓ *Ikasleak beren buruaren jabe, libre, arduratsu eta kritikoak nahi ditugu*
- ✓ *Gizarteko bidegabekeriez kontzientzia, elkartasuna garatuz*
- ✓ *Hezkuntza eginkizunean ikasleen partehartze aktiboa*
- ✓ *Lanerako ohitura eta jakinmina*
- ✓ *Euskara da gure komunikazio hizkuntza eta bere erabilera sustatuko da*
- ✓ *Euskal Herriko errealitate eta kulturarekiko arreta berezia*
- ✓ *Beste kulturak ezagutzeko jarrera irekia*

Balore hauek lantzeko **irizpide nagusi batzuk** ditugu:

- ⇒ **Baloreak biziz** transmititzen dira, ez hainbeste hitzez. Horregatik irakasleon ereduak gure baliabiderik eraginkorrenetakoa da.
- ⇒ **Koherentzia** behar dugu gure mezuak sinesgarriak izango badira. Ikasleok errespetatuak eta onartuak sentitu behar dira, haiei errespetua eta onarpena eskatu behar badiegu.
- ⇒ Arazoen aurrean **ikuspegi hezitzailea** hobetsiko dugu, gure irakasle funtzioarekin bat datorrena: ikasleak heziz

doaz eta gure laguntza behar dute gogoeta egiteko, konpromezuak hartzeko, erabakiak hartzeko, ...

⇒ Jarrera zabala behar da beste pertsona, bera dagoen lekutik eta bizi duen errealitatetik dituen kezka eta beharrak ulertzeko. **Enpatia** derrigorrezkoa dugu elkarbizitzaren inguruko erabakiak hartzeko.



Prozedura desberdinekin bultzatuko dugu parte hartzea eta konpromezua, ikastetxea guztiok propio sentitzeko eta inplikazio eraginkor positiboa bideratzeko:

- Elkarbizitza gestionatzeko **guztion partaidetza** da lehen urratsa, guztion borondatean oinarritzen baita, neurri handi batean, elkarrekiko hartu-emanaren estila.
- Institutua **ikasleak heitzeko esparrua** da, bai ikasgaietako eguneroko lanean, baita beste jarduera eta harramanetan ere. Garrantzitsua da ikasleak institutuan garapen pertsonal eta sozialerako bideak aurkitzea, eta horretarako beren **parte hartzea** beharrezkoa da.
- **Komunikazio esparruak** eta zubiak funtsezkoak dira elkarbizitzaren gora-beheretan esku hartze izateko. Guztiok eduki behar ditugu bideak kritikak egiteko, proposamenak bideratzeko ... Komunikazio esparru hauek estabilitatea behar dute, ohitura bihurtzea garrantzitsua da. Esparru hauek formalak eta ez-formalak izan daitezke.
- **Arazoak eta tirabirak** egongo direla dakigunez, arazoen muinaz gain, arazo hori **bideratzeko prozedurak** landuko ditugu bereziki, jarrera eta portaeretan eragin nahi badugu. Arazoei nola egiten diegun aurre definituko du gure jardun pedagogikoa, ez hainbeste arazo horien edukia.

2. ELKARBIZITZA BATZORDEAK



DBH eta Batxilergoko ikasle,
irakasleak eta
zuzendaritzako kideak
biltzen dira ikasturtean
zehar ElkARBIZITZA
Batzordeetan.

Eraginkorrak izan
daitezen maila bakoitzeko
Batzorde bat eratuta dugu.
Zer egiten da bertan? Ikasle
eta irakasleek beren kezka
eta keza eramatean dituzte
bertara, eztabaidatzeko eta
erabakiak hartzeko. Gai asko
jorratzen dira: ikasle-
irakasle harremanak,

proposamen zehatzak, egin beharreko konponketak edo
garbiketak, ikasleen artean sortzen diren arazoak, ...

Geletako ordezkariak gainontzeko ikasleen kezka
jasotzen dituzte eta gero ElkARBIZITZA Batzordearen
bileretan **hitz egin eta erabaki** denari buruzko
informazioa gelara eramatean dute. Ikasle guztiek dute
ElkARBIZITZA Batzordearen bileren berri.

Oso tresna baliotsuak dira eguneroko dinamika
partehartzaile eta zabala lortzeko. Ikasleek berea
plazaratzeko esparru bat bertan dute eta irakasleekin
edozein gaiz hitz egiteko, modu antolatu batean.
Guztion adostasunean, ahal bada, **erabakiak**
hartzeko dira.

3. DISZIPLINA PROZEDURAK

Bostehun-seiehun ikaslek disziplina arazoak sortzen dituzte noizbehinka. Irakasle edo ikasleekin gaizki portatzen diren ikasleak badira. Zer egiten dugu ikasle horiekin? Hezitzaileak garen heinean, portaera desegokia

aukera bat da ikasleak hezitzeko; **baliabide eta balore pertsonalak lantzeko** bidea irekitzen digu egoera honek. Horregatik, gure helburuak hauek dira:

- portaera desegokiari buruzko **gogoeta** ikaslearengan sortu
- egindakoa **onartzetik** elkarbizitza egokia **berreraikitze**ko bidea jarri
- **konpentsatu**, ahal den neurrian, egindako kaltea

Zuzendaritza eta tutoretzatik erabiltzen ditugun estrategiak, hori guztia lortzeko, honakoak dira:

⇒ **Hitz egin**, behin eta berriro, ikasle horiekin. Elkarrizketa horien helburuak honakoak dira:

- o ezagutu honelako portaeren arrazoiak/atzean legezkeen arazoak
- o egindakoaren larritasuna eta beste pertsonengan dituen horren ondorioak ikasleari azaldu; institutuko elkarbizitzan, gelako lanean, ... honelako porterak onartezinak direla ulertarazi
- o enpatia landu, beste ikasle/irakaslearen lekuan jarriz
- o egoerari irteera emateko ikaslearen proposamenak eta asmoak bideratu

⇒ **Idatzizko gogoetak** eskatzen zaizkie, eduki duten portaera azalduz eta horren inguruko balorapena eginez

⇒ **Eginiko kaltea konpondu** edo leuntzeko egin dezaketena eskatzen diogu kaltea sortu duen ikasleari:

- o Kalte materiala izan bada, dagokien **ordainketa** eskatzen zaie apurketaren eragileei

o Institutuaren mesederako beste lanak (garbiketa, adibidez) eskatzen zaizkie, egindako kaltea konpentsatzeko

o Pertsona bat sufritu edo mindu bada, **azalpena eta barkamen eskaera** (idatziz zein ahoz) eskatzen zaio ekintza desegokiaren eragileari

⇒ **Gelatik baztertzea** ordu batzuetan, aparteko gela batean bidalitako lana betez. Kasurik larrienetan beste baztertze neurriak ere erabiltzen dira

⇒ **Konpromezuak** erabiltzen ditugu, portaera eta jarduera zehatzak eskatzen dizkiegu, bete beharrekoak eta noizero ebaluatuko direnak. Prozedura hauek idatziz zein ahoz burutu ditzakegu.

⇒ Portaera bat zuzentzen denean edota **aurrerapausuak** ematen direnean onartu eta **baloratu** egiten dizkiegu ikasleei

Espedienteen prozedura disziplinarioa salbuespena litzateke gure institutuan. Edozein kasutan Eskola Kontseiluak onartu beharko luke espedientea hasteko. Azken urteotan ez da honelakorik egin.

Disziplina zaintzeko ardura guztiona da:

o Hasteko, irakasleak zuzendu eta bideratuko ditu eguneroko arazo(txo)ak eskola jarduera arruntean, betiko moduan.

o DBHn honelako arazo larria gertatzekotan **Orientatzaileari eta Tutoreari idatziz** pasatuko zaie **oharra**. Lehen Ziklokoen kasuan, gainera, Zikloko liburuan idatzi beharko da gertatutakoa.

o Arazoak errepikatzen badira edo larriagoak badira, **tutorearen parte hartzea** beharrezkoa izango da. Honek hitz egingo du ikasle eta gurasoekin konponbidea bilatzeko.

o Kasua bereziki larria bada, **Zuzendaritza Taldeak** jasoko du, eta tutore eta irakasleekin batera beharreko bideak eta neurriak hartuko dira .

4. IKASLEEN ESKUBIDEAK

Ikasleen betebeharrak eta eskubideen legean eta gure arautegian hainbat eskubide onartzen zaizkie ikasleei, ikastetxeen esparruaren barnean: greba eskubidea, adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea, ...

Eskubideak erabiltzeko direlakoan gaude, eta horregatik normaltasunaren adierazlea da ikasleek greba egitea, asanbladan biltzea edota kartelak jartzea.

- ⇒ Eskubide horietaz baliatzeko muga estuegirik ez jartzea da gure apustua, tolerantziaren irizpidea mantenduz
- ⇒ Jarduera horietan ikastetxeko kide guztiekiko errespetua izatea eskatuko zaie ikasleei
- ⇒ Barne arau eta prozedurak betetzea heziketa helburua ere bada (kartelak jartzeko berezko lekuak erabili, bilerak egiteko baimen idatzia aurkeztu, grebak deitzeko eta burutzeko dagokien prozedurari jarraitu, institutuko denborak eta lekuak erabiltzeko zuzendaritzarekin adostu, ...)


Honen inguruko erabakiak hartzeko funtsezkoa deritzogu

komunikazio ona

izatea ikasleekin, haiek institutuaren baldintzak eta egoera ulertzeko eta guk ere haien asmoak, proposamenak eta eskaerak ezagutzeko.



5. IRAKASLEON JARRERA



Ikastetxean ikasle-irakasle erlazioak zaintzea funtsezkoa da; egunero eta hasieratik eginbehar garrantzitsuenetakoa dugu hau. Koldo Mitxelenan lehenetasuna ematen diogu gure giroari, ikasleekiko harremanak hurbilak, konfidantzazkoak eta errespetuzkoak izan daitezten. Horrela, eguneroko elkarbizitza egokiaz gain honakoa lortu nahi dugu:

- ⇒ Ikasleek **eredu argi eta koherentea** izatea irakaslearen jarreran eta portaeran. Errespetua, hurbiltasuna, ardura, hitz hutsez ez dira irakasten, eguneroko dinamikan txertatuz baizik. Guk beti errespetua erakustekak izugarri errezten digu errespetuaren eskaria ikasleei egitea.
- ⇒ **Ikas-irakas prozesua** bultzatu, komunikazioa erreza eta konfidantzazkoa denean hobeto eta gehiago ikas-irakas baitaiteke, guztiontzako modu aberasgarri eta atseginago batean.
- ⇒ Edozein **gatazka** edota **arazo** sortzen denean ez da erortzen hutsera, aurretik bilbatutako erlazio sare batean baizik. Gure erlazio sarea kalitate onekoa bada, hartu beharreko aukerak, arazoak eduki dezakeen garapena, askoz egokiagoak izango dira eta konponbide posibleetarako ate gehiago izango ditugu zabalik.

Denok gara desberdinak eta bakoitzak gauzak egiteko modu bat dauka; ezin da zehaztu nola bideratu behar dituen nor bere harremanak, guztion artean giro egokia lortzeko.

Baina, hala ere, irizpide orokor batzuk eman daitezke:

- **Ongi burutu egin beharra:** ordukotasuna zainduz, lanaren planifikazio egokia eramanez, klaseak garaian bukatuta (ez lehenago) ...
- **Argi azalduz** ikasleei zer egin behar duten eta **nola**
- **Agertu beti prest laguntzeko** ikas-irakas prozesuan
- **Entzun ikasleei eta kontuan hartu** haien dudak, eskariak eta beharrak. Ikasleen egoera ulertzeko beren lekuan jartzen saiatu: hortik errezagoa izango zaigu gure eskariak eta ikasgaiaren beharrak ikasleei adieraztea
- **Honen ildotik, galdetu, eskatu iritzia,** gaiez eta ikas-irakas prozesuari buruz, bi aldeetako komunikazioa bermatzeko eta helburu komunak bideratzeko
- **Ez mehatxatu, ez iraindu, ez utzi barregarri** ikasleak
- **Ikasle batek portaera desegokia duenean ere, ohartarazi modu argiz** baina beti ere **errespetuz,** argi utziz zein den portaera desegokia eta horren eragina. Ikasle batek gelan asko haserretzen gaituenean, jendaurreko eztabaida zuzen eta zakarrak ekidinez
- **Ikasleen arteko diferentziak errespetatu,** maila, erritmo, izaera desberdinak dituzte. Konparazioak gutxitan dira lagungarriak.
- **Ikasleak heziz doazen pertsonak direla ongi barneratzen** badugu, errezago ulertuko ditugu eta ikusiko dugu nola lagundu momentu bakoitzean

Hala ere, ikasleren batek geure onetik ateratzen gaituenean hobe genuke **lasaitasunari** eustea, noski. Hemengo irizpideak egokiak izan daitezke ikasleren baten portaera desegokiaren aurrean:

- **Gaiaren garrantzia ondo neurtu** behar da, ez baitatoz beti bat arazoaren garrantzia eta eragina batetik eta gudan eragiten duen haserrea bestetik.

- Momentuan **garrasika** hasiz gero, **nekez** konpontzen dira gauzak eta bai, ordea, zeharo konplikatzen zenbaitetan.
- **Ez da inola ere komeni** ikasleekin ika-mika jardutea, eta are gutxiago beraiei modu **sarkastikoz** edo **iraingarriz** (barregarri uzteko asmoz) aritzea.
- Arazoa sortu duen ikasleari esan behar zaiona **berari esan**, ez publikoki, beti ere **errespetuz**.
- Klasea amaitutakoan, **ikaslearekin hitz egin** behar genuke arazoa konpontzearen, eta geroago tutoreari jakinarazi.
- **Ikasle kanporaketa** aparteko neurria da (ez ohikoa); orduan zuzendaritzara eramán ikaslea. Ez dezagun ikaslerik bakarrik zuzendaritzara bidali.
- Orduan, kasua aztertuta, dagozkion neurriak erabakiko dira, hartara ikasleek argi eta garbi jakin dezaten hasiera-hasieratik errespetu falten eta, oro har, jokabide desegokien aurrean sistematikoki **arazoari heldu** eta erantzuna emango diogula.
- Ez dezagun problemen aurrean ez-ikusiarrena egin

Ikasle baten portaera desegokia denean **gure jarrera funtsezkoa da**: gure lekuan bagaude, arazoari heltzen eta errespetuz jokutzen, asko dugu irabazia geroko. **Ikasleengan gogoeta kritikoa sortu** behar dugu beren portaeraz: zer nolako eragina duen gelan, ikaskide(ar)engan, irakasle(ar)engan; hau ez dugu lortuko ikasle horrek autoritate moralik onartzen ez badigu. Autoritate moral hori zaintzen dugu ikaslearekiko errespetuzko jokaera dugunean. Gainontzeko ikasleen aurrean, gainera, oso argi egon behar du nork duen portaera desegokia eta hori ez dute definituko gure hitzek, gure jarrera eta gure jarduna baizik. Bestalde, eskolako arazoen konponbideak askoz errezagoak dira **helduok gure lana egoki bete**tzen dugunean.

Ohiko jarrera hauek lagunduko digute:

- ⇒ **Zintzo jokatu ikasleekin**, hitz egin argi haiekin
- ⇒ Ez itxuraldatu errealitatea, ez manipulatu, **onartu egia**, haiek ere egiaziak izan daitezzen
- ⇒ Huts egiten dugunean, **eskatu barkamena**, haiek ere gauza bera egin dezaten
- ⇒ **Ez epaitu, ez suposatu** aurretik ikaslearen asmoak, kezak, arazoak, ...
- ⇒ **Arretaz entzun** ikasleei, hartu ikaslea heldua balitz bezala, bera horrela portatzea nahi baduzu

6. GURASOEKIKO LANKIDETZA

Gauzak hobeto doaz gurasoekin batera lan egitean.

Komunikazioa zaindu eta indartu behar da:

→ Tutore eta gurasoen arteko harremana funtsezkoa da

→ Gurasoekin egiten den hasierako bilera ongi prestatu behar da

→ Egunerokoari buruzko informazioa eman eta elkarbanatu: telefonoa, bilerak, e-inika, ...

→ Irakasleek eta gurasoek elkarrekin askoz eraginkorragoak direla argi eduki

Arazoak daudenean, gurasoekin kontatu, egoki bideratzeko:

→ Arazo larriak tutore eta zuzendaritzaren bidez eraman, familien arteko liskarrak ekidituz

→ Informazio zuzena eta osoena eman gurasoei

→ Konponketarako laguntza eskaera zehatzak egin


→ Heziketa planteamendu komunitik abiatzen saiatu



7. TXANGOAK ETA BIDAIAK

Bultzatuko ditugu, irakasle eta ikasleak **elkarrekin egoteko denborak eta lekuak** direlako. Ikasleen artean eta ikasle-irakasle harremana estutzeko aukera ematen dute ekintzok, elkar hobeto ezagutuz gelatik kanpo. Ekintza hauek Hezitzaileak izan daitezten:

- a. Ikasleen arteko **giro egokia zainduko** dugu
- b. Posible denean, **ikasleak ekintzen prestakuntzan** inplikatzeko badira, askoz eraginkorragoak izango dira.
- c. **Ebaluazio irizpideetan elkarbizitza irizpideak** jaso honelako ekintzetan, ikasleei jakinarazi: elkarrekiko eta inguruekiko errespetua, parte hartzea, ...



8. BITARTEKARITZA ESTRATEGIAK

Askotan BITARTEKARITZA beharrezkoa da, arazo batean,. Gure institutuan, ohiko arazoei irteera emateko daukagu bitartekaritza bideratzeko modu desberdinak:

- **Tutorea**, lehen mailako bitartekaritza lanetan
- **Elkarbizitza Batzordea**, heltzen zaizkion arazoetan
- **Zuzendaritzako kideak**
- **Beste bitartekariren bat** ere egon daiteke egoerak eta baldintzek hala eskatuko balute (irakaslea, ikaslea, gurasoa, ...)

Gure ohiko prozedura honakoa izan daiteke:

→ **Bakoitzari entzun**: nola sentitzen den eta zergatik; entzun, hitz egin, gauzak argitu eta askotan ere idatziz jartzea eskatu egiten zaio (objektibatu egiten da)

→ Gero, bigarren momentu batean **enpatia** lantzen da, galderen bidez, ... (bestearen ikuspuntuak ezagutarazi)

→ **Konponbiderako urratsak**:

- Inplikaturakoei eskatzen zaie espresatzeko (idatziz edo ahoz) **zer dauden prest egiteko** arazoa konpontzearen, zer proposa dezakete beren aldetik (ez hainbeste zer eskatuko litzaiokeen beste aldeari)
- Hortik bilatzen da **adostasun-konpromezua** alde bion artean
- Jarraipen moduak adosten dira eta **jarraipena** egiten da konpromezuen betetze maila bermatzeko

9. BULLYINGERAKO ESTRATEGIAK



Estrategia nagusia **prebentzioa** da, eta honetan hauek dira gure helburuak:

- ✓ **Barne diskurtsoa sortu** gure arteko erlazio eta errespetuaren inguruan, Bulling-aren atzean dauden jarrerak onartzen ez dituenak
- ✓ **Giroa zaindu** honelako erasoak ikasleek lekuz kanpo sentitzeko (Dokumentu honetan jasotzen diren prozedurak, patio zaintzak, arreta pasabideetan, Elkarbizitza Batzordeak ...)
- ✓ **Prozedurak ezarri**, laster antzemateko eta guztion artean aurre egiteko (Elkarbizitza Batzordeak, tutoretza lanaren jarraipen hurbila, ...)

Hala ere, honelako kasu baten aurrean, **ezarritako protokoloa** jarraituko dugu (sarean dago jarrita), prozedura **zehatz-mehatz** jarraituz, informazioa ongi gordez eta dagokion jarraipena eramanez. Honela egin dugu orain arte.

10. BIZIKIDETZA PLANA

9.1. BIZIKIDETZA BEHATOKIA

Elkarbizitza Behatzeko tresna, Eskola Kontseiluko kideez osatua. Informazioa jasoko du, inkeste eta elkarrizketen bidez eta txostena egingo du urtearen amaieran. Proposamenak ere plazaratu ditzake Bizikidetzaren arloan hobekuntzak egiteko asmoaz

9.. BIZIKIDETZA PLANAREN ALDEAK

Bizikidetza Plana urtero egiten da institutuan eta bertan bilatzen dena honakoa da:

SENTSIBILIZAZIOA EGITEA:

Ildo honetatik kanpaina eta ekintzak burutzeko


DIAGNOSIA EGITEA:

Gure institutuko errealitatea hobeto ezagutzeko
(batez ere Behatokiaren funtzioa da)

PLANIFIKAZIOA EGITEKO:

Aldatu beharrekoa eta txertatu behar diren berrikuntzak antolatzeko

Plan hau garatzeko ardura eskola komunitate osoak du eta Bizikidetza Behatokiaz gain institutuko beste talde eta pertsonak arituko dira ezarritako helburuak lantzen (irakasleen prestakuntza taldeak, Elkarbizitza Batzordeak, Guraso Elkarteko kideak ...)



IKASLEEI HEZIKETA INTEGRALA ESKEINI

